

## **ANTSOAINGO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2026 OINARRIAK**

### **1. PARTE-HARTZAILEAK:**

Bi kategoria egonen dira:

**Haurrak:** 15 urte bitarte (Antsoaingo auzokideentzat bakarrik)

**Helduak:** 16 urtetik gorakoentzat (Antsoaingo auzokideentzat eta kanpokoentzat).

### **2. KARTELAREN EZAUGARRIAK:**

- Obrek ondoko testua agertu behar dute nahitaez:

**ANTSOAINGO JAIK 2026 / FIESTAS DE ANSOÁIN 2026**  
**Irailak 17-20 septiembre**

- Obrek izenburu bat izan beharko dute. Izenburua lengoi inklusiboan idatzita egon beharko da.
- Obrek neurri zehatz bat eduki behar dute: DIN A3 (297 mm zabalera x 420 mm altuera) bertikalean editatu ahal izateko.
- Edozein teknika erabil daiteke, baina koloretan aurkeztu beharko da. Lan originalak izan beharko dute. Deskalifikatu egingen dira, osorik edo zatika beste lehiaketa batzuetan aurkeztutako edo/eta argitaratutako argazkien, kartelen, pinturen eta abarren plagio badira. Berariaz debekatuta dago Adimen Artifizialeko (IA) tresna sortzaileak erabiltzea kartela sortzeko, diseinatzeko, ilustratzeko edo osorik edo zati batean osatzeko. Hori ziurtatzeko, erantzukizunpeko adierazpena beteko da helduen kategorian.
- Obrak gainalde gogor batean jarrita aurkeztuko dira.
- Deskalifikatuta geldituko da arauak zorrotz betetzen ez dituen lehiakidea.

### **3. OBRAK AURKEZTEKO ETA ONARTZEKO EPEA:**

- Parte hartzaile bakoitzak, gehienez bi obra aurkez ditzake.
- Obrak Antsoaingo Udaleko Kultura Zerbitzura bidaliko dira (Mendikale kalea 8, 1. solairua), obraren atzealdean izenburua grabatuta.
- Aurkeztutako obrarekin batera, kartazal itxia joanen da, kanpoaldean obrari jarritako izenburua eta parte hartzen den kategoria adierazita. Barnean, izen-abizenak, helbidea eta egilearen telefonoa eta, helduen kategoriaren kasuan, egiletzaren erantzukizunpeko adierazpen sinatua ere erantsiko da.
- Obrak onartzeko epea ekainaren 5ko 14:00etan bukatuko da.

#### **4. OBRAK ZAINTZIA:**

Udala arduratuko da obrak zaintzeaz eta baldintza onetan edukitzeaz; ez du inolako ardurarik onartuko besteren kausagatik aipaturako lanak kaltetzen edo hondatzen badira.

#### **5. HAUTAKETA PROZESUA**

- Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Lehendakaritza: Kultura Zinegotzigoa

Epaimahaia: arte plastiko eta bisualetan kualifikatutako bi pertsona, Udalak izendatuak.

- Haurren lehiaketan epaimahaiak aukeratuko du irabazlea eta erabakia apelaezina izango da.
- Helduen kategoriari dagokionez, epaimahaiak bost kartel finalista aukeratuko ditu. Horien artean Antsoainen erroldatutako egilerik balego, Antsoaingo sari berezia jasoko luke. Pertsona bat baino gehiago erroldatuta egonez gero, herritarrei irekitako bozketan puntu gehien lortu dituen obrak irabaziko du.
- Bost kartel finalista IDAKIko hallean egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian eta udal webgunean argitaratuta. **Ekainaren 15etik 24era herritarrek parte hartzeko epea irekiko da** banakako bozketa bidez, herritarren boto gehien jaso dituen kartelak lehiaketaren irabazlea izango delarik.

- Bozketa, ekainaren 25eko 14:00ak arte egin ahal izango da udaletxeko Kultur zerbitzuko bulegoan, 012 telefonoaren bitartez (astelehenetik ostiralera) eta udalaren webgunean ([www.ansoain.eu](http://www.ansoain.eu)). Botoa emateko baldintzak 16 urtetik gorakoa izatea eta Antsoainen erroldatuta egotea dira.
- Kartelaren egiletza ezin izango da lehiaketa prozesuan zehar argitara eman.

## 6. OBREN ERAKUSKETA:

Antsoaingo Udalak erakusketa publikoa antolatzeko eskubidea izanen du, parte hartu duten kartel batzuekin edo guztiekin, behar den moduan jakinaraziko den egunean, lekuan eta orduan.

## 7. SARIAK:

- Epaimahaiak, kategorien arabera, honako sariak emanen ditu:
  - o HELDUAK 1. saria: 500 €
  - o Antsoaingo lehenengoarendako sari berezia, bost lan hoberenen artean gelditzen bada 250 €
  - o HAURRAK 1. Saria: 125 euroko txartela, Antsoaingo denda batean erosteko.
- Diru-sariak banku-transferentzia bidez ordainduko dira. Deskribatutako sarien zenbatekoei dagozkion atxikipen eta zergak ezarriko zaie, Zergei eta Zerga Neurriei buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- Saria jaso duten lanak: jabetza Antsoaingo Udalera pasatuko da; egileak erreproduzio eskubideak Udalari lagako dizkio.
- Saritutako parte-hartzaile bakoitzak **sari bakarra jasotzeko eskubidea izanen du.**
- Saritu gabeko obrak parte-hartzaileek eskura izanen dituzte, lehiaketaren ondorengo hogeita hamar egunetan. Epe horretan jasotzen ez badira,

egileek uko egiten dutela ulertu, eta edozein helegite edo indemnizazio eskubide galduko dute.

- Epaimahaiak ahalmena izanen du lehiaketako sari bat edo guztiak saritu gabe uzteko.

## **8. SARI BANAKETA:**

Saritutako lehiakideek konpromisoa hartzen dute saria pertsonalki jasotzeko Udalak horretarako antolatzen duen ekitaldian. Hala ere, saria esandako ekitaldian jaso daiteke behar adinako aurrerapenarekin izendatzen den beste pertsona baten bidez. Izendapena Udaleko Idazkaritzari jakinaraziko zaio. Ez da saririk ordainduko egingen den ekitalditik kanpo.

## **9. JABETZA**

Kartel sarituaren jabetza Antsoaingo Udalarena izango da. Horregatik, Udalak saritutako kartelei nahi adina kopia litografiko edo beste motatakoak egiteko eskubidea hartzen du, nahi duen erabilerarako. Eta beraz, egileek ezin izango dute erreklamaziorik egin. Sariaren bidez, Altsasuko Udala saritutako kartelaz jabetzen da, eta hari dagozkion izaera ekonomikoari buruzko jabetza intelektualeko eskubideez ere, hau da, kopia, banaketa, jakinarazpen publikoa eta itxuraldaketa, betiere Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan, halako maneran non Udalak eskubidea izango baitu lana edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzko batean aurkezteko, bai eta merkataritza helburuekin lana banatu edo jendaurrean jartzeko ere. Espresuki barne hartzen ditu, baita ere, lanak hala on-line eran nola Internet motako sare digital elkarreragileen bidez eman eta igortzea.

## **10. DATUEN BABESA**

Antsoaingo Udala da datuen tratamenduaren arduraduna, dirulaguntza deialdiak kudeatzeko helburuz eta botere publikoak baliatuz erabiliko diren datu pertsonalei dagokienez. Datuak laga ahal izango dira indarrean dagoen legedia betez, eta udalaren webgunean eta dirulaguntzen atarian argitaratuko dira. Datuak eskuratu, zuzendu eta kentzeko eskubidea daukazu, baita beste

hainbat eskubide ere, eta horretarako, udal bulegoetara jo beharko duzu. Datuen tratamendurako zerrenda eta datuen babesari buruzko informazio gehigarria kontsultatu nahi baduzu, jo ezazu gure web orriaren Pribatutasun-Politikara ([www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)).

#### **11. AZKEN XEDAPENA:**

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauen onarpena dakar. Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein egoera lehiaketa honetako epaimahaiak erabakiko du.